

«Banku txarra» erdi-prezioan salgai

1.500 milioi euro balio duen Neinor Barria 800 milioitan saldu nahi dio Kutxabankek inbertsio funts bati. Cajasurrek adreiluan egindako zulo handiena biltzen du higiezin agentziak.

| URKO APAOLAZA AVILA |

HUTS EGINDAKO operazio urbanistikoetan inbertitutako diruak Neinor Barria higiezin agentzian (“banku txarra” ere deitua) dauzka bilduta Kutxabankek. 1.500 milioi euroko aktiboak direnak 800 milioi eurotan salduko litzuzke orain, eta *Expansión* egunkariaren arabera, akordioa kasik itxita dago Lone Star inbertsio funtsarekin.

Kutxabank aspaldi dabil funtsen kudeaketaren negozioan sartuta eta eperako gordailuak dituzten bezeroei horietan inbertitzeko aukera ematen die.

Honakoa beste pauso bat litzateke inbertsio funtsekin harremana estutze aldera. Neinor Barriaren ondarean lurzoru ugari dago eta Lone Starrek Kutxabankekin batera “garatu” nahi litzuzke horiek.



Mario Fernándezek sustatutako Cajasurren erosketak sortu du Kutxabanken zulo handiena.

Higiezin agentzian, adreiluan negozioari lotutako Cajasurren aktibo toxikoak dira zati handiena (634 milioi euro). Mario Fernándezek bultzatu zuen Cajasur Kordobako kutzaren erosketak, 2010ean

BBK-ko presidente zela, entitate Espainiako finantza merkatuko “aktore nagusietakoa” bihurtzeko ametsarekin. Orain, sekulako pagotxa zena erdi-prezioan salduko du Kutxabankek, bidean chunka milioi euro utzita.

Mario Fernándezen dimisioa eta pribatizazioa

Espainiako Bankuak aurki esango du BBK, Kutxa eta Vital banku fundazioak Kutxabanken akzionista bakarra diren ala hiru diren. Lehenengo

kasuan, 700 milioi euroko erreserba funtsa beharko lukete bankuaren %50etik gorako kontrola mantendu nahi izanez gero, bigarren kasuan 300 milioi eurokoa litzateke. Dirudenez, banku zentralak bigarrenengo aukeraren alde egingo luke, eta horrenbestez, dirua lortzeko Kutxabanken kapital pribatua sartzea defendatzen dutenen argudioak indarra galduko luke.

Hori izan ei da Mario Fernándezek Kutxabankeko presidente bezala dimititzeko arrazoietako bat. Heda bide nagusietan ere bankuaren pribatizazioaz EAJrekiko zituen iritzi desberdinak haizatu dituzte. Eragile sozial eta sindikatuen ustez, aldiz, desadostasuna tempoetan baino ez dago, hauteskundeak gertu baitira.

Aldiz, oharkabean igaro dira Neinor Barriaren inguruko negoziazioen berriak, “diskrezioa” nagusitu da gai horretan. Argitzeke dago salmenta horrek erlaziorik duen bankuak erreserba funtsa sortzeko duen kapital behararekin eta Fernándezen dimisioarekin. ■



100 milio euro gehiegizko klausulek kaltetutako herritarrei

HIPOTEKA maileguen erreferentzia indizea (HMEI) aplikatzeagatik, Kutxabankek 100 milioi euro itzuli behar dizkie kaltetuei, HMEI Stop Gipuzkoa plataformak egindako kalkuluen arabera. Indize hori 2013an desagertu zen, baina entitateak bere mailegatuei aplikatzen die oraindik.

30 demanda judizial bateratu jaso ditu Kutxabankek azaroan HMEI dela eta. Hirian.com-ek jaso duenez, HMEI Stop Gipuzkoak kalkulagailu bat sortu du, mailegatuek jakin dezaten bankuak zenbat diru itzuli beharko lieken. “Guztira 100 milioi euro bueltatu beharko litzuzke Kutxabankek, familiako 10.000-15.000 euro artean”, azaldu du plataformak.

Presidente berriarekin negoziatzeko prest

Diru kantitate hori itzultzeak Kutxabankentzat izan ditzakeen ondorioak kontuan hartuta, Gregorio Villalabeitia presidente berriari “eskua luzatzeko prest” dago HMEI Stop Gipuzkoa, negoziatioari begira.

Baldintza batzuk eskatzen ditu horretarako, Xabier Iturbe Kutxako presidentearen dimisioa eta HMEIren ondorioz kaleratutako pertsonen etxea itzultzea, besteak beste.

Nerea Ibarzabal Salegi